

IPAR EUSKAL HERRIKO METAMORFOSI EKOLOGIKOAREN EGOERA

Urrats ttipiak,
hitzemanetakik eta
larrialdiak galdatu
heinetik urrun



SARRERA

1. KLIMA-ALDAKETA ZALUTZEN ARI DA

Uda honetan, bero-boladak eta alga toxikoen ugaritzea; joan den udazkenean, uholdeak: klima-aldaketa larriagotzen ari da eta haren ondorioek gero eta gehiago eragin dute Ipar Euskal Herrian. Berotegi-efektuko gasen emisio globalen igotzearen ondorioz, muturreko eguraldi-gertaeren maiztasunak eta intentsitateak handitzen jarraitzen dute. Emisio horien murrizketa handiak eta lasterrak soilik murriztuko ditu gizakien osasunari eta gure lurraldeen bizigarritasunari dagozkion mehatxuak.

Industriaurreko garaiarekin alderatuta, +1,5 °C-ko berotze-muga segurtatzeko helburua hemendik aitzina ezingo da lortu. Parisko Akordioan finkatu muga horren gainditzea dela eta, hainbat lurralde, bereziki estatu-ugarte ttipiak, urpean geldituko dira eta bizigaitzak bilakatuko. Gizakiaren jarduerak isuri berotegi-efektuko gasen ondorioz, berotzea zaltzen ari da: 2024 urtea sekula neurtu ez den urte beroena izan da, 2023 urtea bigarren postuan delarik.


Desafio historiko honek politika publiko handiak eskatzen ditu, beharrezko eraldaketak bidezko moldean laguntzeko gure mugitzeko, elikatze, bizitzeko eta baliabideak erabiltzeko moldeak aldatuz. Helburua da planetaren mugak errespetatzea eta ber maneran jendeen beharrak asetzea. Hala ere, Frantziako Estatuaren atzerapausoek eta 2024ko deskarbonizazioaren motelaldiak kontrako norabidea erakusten dute, Haut Conseil pour le Climat delako Klimaren aldeko Goi Kontseiluak ohartarazten duen bezala. Aholku Batzorde independente honek gomendatzen duelarik **justizia sozialaren erronkak erabat integratzea klima-politikan**, desberdintasunak handitu dira: pobrezia maila historikora heldu da eta ultra-aberatsen diru-sarrerak gorantz doaz.

Tokian tokiko ekintza batzuk martxan ezarri badira ere, orokorrean ez dira oraino behar den mailan, eta neurri batzuek norabide makurrean segitzen dute. Lurraldeko eragileek sorturiko **berotegi-efektuko gasen % 50 tokiko kolektibitateek hartu erabakiekin** ¹ **lotuak dira** baina ber maneran **tokian tokiko mailan ere aurkitzen dira aterabide gehienak**. Horregatik, Ipar Euskal Herrian, begirale ekologikoek osaturiko herritarren mobilizazio batek erakunde publikoak erronkaren mailara altxatzera bultzatzen ditu.

2. METAMORFOSI EKOLOGIKOAREN ITUNA

Aitzeneko kargualdiaren bilanean, Biziko Hitza Hitz batzordeak ² ondorioztatu zuen biztanleriaren % 75 ordezkatzen zituzten eta segituak ziren 30 Herriko Etxeetarik oso gutik abiatu edo gauzatu zituztela klima tresna-kutxako ekintzak. 2014 eta 2020 artean ez zen izan trantsizio ekologikorik Ipar Euskal Herrian. Alta, GIEC/IPCCko ³ zientzialariek azpimarratzen zuten klima-egoera larriarekin, trantsizio motelak ez zirela aski.

Horregatik Bizik proposatu zuen 2020ko herriko bozetan **Metamorfosi ekologikoaren Ituna** ⁴. Itun honek 7 arlo nagusitan antolaturiko ekintzak biltzen ditu: autoz bakarkako mugikortasunari alternatibak, eraikinetako energia-kontsumoaren kontrola, % 100 energia berriztagarriak dituen lurraldea, laborantza eta elikadura biologiko eta tokikoak, tokiko ekonomia euskoaren bidez sustatzea, hondakinak murriztea eta Klima Plana martxan ezartzea. Itun honen sinatzaileek ekintza horiek guztiak herriko etxe eta elkargo mailan gauzatzeko engaiamendua hartu zuten.



Hauteskundeetarik landa, Itunaren sinatzaile diren 46 zerrendak bozak irabazi zituzten. Sinatzaile diren Herriko etxeak, hiri, hiri inguru eta edo baserri eremu eta tokioak dira, neurri eta joera politiko guzietakoak, Ipar Euskal Herriko 3 probintzietan eta 9 lurralde eremutan kokatuak. Hitza Hitz batzordeak halaber 2.000 biztanlez goitiko sinatzaile ez diren 10 Herriko etxeren (3 hiri: Angelu, Bokale

¹ Izan zaitez trantsizio ekologiko eta energetikoaren eragile (ADEME)


² Euskal atsotitzetik ateratua.

³ GIEC - IPCC : Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea

⁴ Ikus azalaren azken alde

LES LIMITES PLANÉTAIRES

2025 : 7 limites dépassées



→ Planetaren mugak eta haien gainditzea, 2023an, eskema eguneratua, 2025eko ekainaren 9an itsasoan azidifikazioari dagokion 7. mugaren gainditzearekin (Stockholm Resilience Centre, Stockholmeko Unibertsitatearen arabera. Richardson et al. 2023, Steffen et al. 2015 eta Rockström et al. 2009 oinarritut harturik). Planetaren mugak ez dira gainditu behar, bestenaz oreka naturalean aldaketa bortitz eta itzulezinak sor daitezke. Muga gehiago gainditzeko den heinean, gero eta handiagoa da Lurra gizateriarentzat ezin bizigarria izateko arriskua.

eta Donibane Lohizune, eta 7 herri: Ahetze, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Beskoitze, Larresoro eta Ahurti) segipena egiten du, Ipar Euskal Herriko metamorfosi haien parte-hartzerik gabe ez baita gauzatuko.

Batzorde honek, beraz, herritar zaintza-lana egiten du **56 Herriko Etxetan, herri hauek, orotara, Euskal Elkargoko biztanleriaren % 87 inguru ordezkatzan dutelarik. Euskal Elkargoa ere engaiatua da desmartxa horretan hautetsi sinatzaileen bidez.**

3. BEGIRALE EKOLOGIKOEN EKINTZA

Biziko Hitz Hitz batzordeak herritarren mobilizazioa bultzatzen du klima-egoera larriari buru egiteko, herritar bakoitza bere herrian eta lurraldean begirale ekologiko gisa inplikatzera animatuz. Ekologia zientifikoan, "begirale" izendatzen dira ekosistemaren aldaketak goiz detektatzeko gaitasuna duten espezieak. Sagarroiaren kasua bezala, Hitz Hitz-eko begiraleek beren Herriko Etxeko ekosistemaren bizian parte hartzen dute, udal aitzindarien **ekintza eredugarriak** nabarmenduz edo **klima-suntsitzaile** diren proiektuak salatuz. 44 begirale ari dira molde aktiboan eta 21 jada bildu dira Herriko Etxeetako taldeekin.

Hitz Hitz batzordeak bi txosten argitaratu ditu, 2021ean eta 2023an, metamorfosi ekologikoaren aitzinatzearen egoera ahal bezain molde objektiboan bilduz. **Elebidunak diren aldizkarien zapi ale** argitaratuz, erregulariki komunikatuz. Itunaren gai ezberdinei buruzko **7 formakuntzako 2 ikastaro-ziklo** eskaini dizkiete hautetsi eta langileei, adituen ekarpenekin, Herriko Etxe eredugarri eta inspiratzaileen testigantzekin eta tokiko eragileen parte-hartzearekin.

4. METODOLOGIA

Jarraipenaren ebaluazioan segituak diren herrien aniztasuna hobeki kontuan hartzeko, Hitz Hitz batzordeak herriak bereizi ditu biztanle kopuruaren arabera: 25 herri ttipi (2.000 biztanle pekoak) eta 16 herri (2.000 eta 5.000 biztanle artean) eta 15 hiri (5.000 biztanle goitikoak). Metafora jarraituz, batzordeak intsektuen eraldaketa-etapak hartu ditu Herriko etxeen metamorfosi-maila irudikatzeko, Ituneko 7 arloetan diren ekintzentzat. Ekintza bakoitzari puntuazio bat eman zaio:

- **-1: gibelatzeen kasuan** – lege-haustea edo Itunaren engaiamenduen kontrako ekintzak
- **0: ekintzarik ezaren kasuan** – ez da ezer esanguratsurik egin
- **1: arroltzearen kasuan** – ekintza hasiera bat abian jarri da
- **2: beldarraren kasuan** – ekintzaren % 25 eta % 50 artean gauzatua
- **3: krisalidaren kasuan** – ekintzaren % 50 eta % 75 artean gauzatua
- **4: helduaren kasuan** – ekintzaren % 75 baino gehiago gauzatua

Arroltze fasea lehen ekintzekin lor daitekeen arren, beldar faseetik aitzina (2 eta gehiago) gehienetan kuantifikazio bati lotua zaio: Herriko etxeek galdaturiko adierazleak eman behar dituzte, begiraleek aitzinatzea aski den ala ez ebaluatzeko. Larrialdi ekologikoaren testuinguruan, eskaera honek islatzen du beharrezkoa dela eskala-aldaketa egitea, dimentsio sinboliko edo ilustratibotik haratago.



→ Begirale ekologikoak : metamorfosi ekologikoaren Itunaren ekintzen gauzatzearen jarraipena egiten duten herritar sarea

EMAITZA NAGUSIAK

1. HERRIKO ETXE MAILAKO GARDENTASUNA


Zaindarien eskaera ugariei esker (posta elektronikoak, telefono-deiak eta udaletxeetan egindako bilerak), agintaldiaren amaiera honetan udalerrien erantzunak ugariagoak eta osatuagoak izan dira. **46 Herriko Etxek 5 bidali dituzte erantzunak**, horietatik 5 Ituna sinatu ez dutenak: Angelu, Arbona, Basusarri, Bokale eta Donibane Lohizune. 2021arekin konparatuz 11 Herriko Etxe gehiago dira, eta 2023arekin konparatuz 7 gehiago.

Ituna sinatu duten Herriko Etxeen % 89 baino gehiagok erantzun diote ebaluazio honi. Lehen aldikotz, 15 hirietatik 15ek bidali dituzte beren erantzunak. Aldiz, 6 herrik ez dute erantzun: Ahetze, Beskoitze, Ezpeleta, Larresoro, Ahurti eta azkenik Arrangoitzek. Azken hau da 3.500 biztanle baino gehiago dituzten herrietan, galdatuak izan zaizkion interes publikoko informazioak igorri ez dituen Herriko Etxe bakarra. Hori dela eta, Bizik Dokumentu Administrazioetarako Sarbidearen Batzordera, hots CADARA, jo du.


Otik 4ra neurtzen den Herriko Etxeen gardentasunaren puntuazioa hainbat irizpideren arabera egiten da: Herriko Kontseiluarekin harremanetan sartzeko errextasuna, itzuliak izan diren jarraipen-fitxen kopurua, erantzunen zehaztasuna eta osotasuna, baita behar bezala zehaztu diren adierazleen portzentajea ere.

Herriko Etxeen gardentasunaren batez besteko maila 2,4koa da – 2021arekin alderatuta +0,8ko igoera. Aitzinatze hori, besteak beste, puntuazio maximoa (4) lortu duten 7 Herriko Etxeren parte-hartze eredugarriari esker azal daiteke (2021ean 1 eta 2023an 6 izan ziren). Horrez gain, Hitzaz Hitz batzordeak erabaki zuen “aitzin-ebaluazioak” bidaltzea epean erantzun zuten Herriko Etxeei, datuak osatzeko edo zehazteko aukera izan zezaten eta CADARA jotzea 3.500 biztanle baino gehiagoko Herriko Etxeen kasuan; eta baita ondoko Herriko Etxeetako hauteskundeentz testuingurua kontuan hartzea ere. 2025ean 40 egoera adierazle bete dira eta 2021ean 17. Erantzunen kopuruan, osotasunean eta zehaztasunean **hobekuntza nabarmena izan bada ere**, oraindik ere **gardentasun demokratikoaren maila mugatua da.** Eginiko hiru balorazioen artean batez bestekoa 4tik 2koa da – oraindik ere erronkei buru egiteko eskasa den emaitza.

Kolektibitateen gardentasun handiago batek bakarrik ahalbidetuko du ingurumen-erronkei erantzun eraginkorra ematea.



54 Herriko Etxek bakarrik izan dute azterketa osoa, izan ere, Eihalarre eta Urepelek berantegi erantzun zuten eta ez ziren tratatu ahal izan.



Horrek galdatzen du erabaki-hartze eta jarraipen prozesuen irekiera zinezkoa, erregularra eta osoa, herritarren parte-hartze handiagoa eta hautetsien erantzukizun handiagoa bultzatuz. Engaiamendu kolektibo eta iraunkor hori gabe, arriskua da asmo ekologikoak azaleko proposamen huts bilakatzea, ekintza zehatzetan behar bezala gauzatu gabe.

Horrek erabakiak hartzeko eta jarraipena egiteko prozesuak zinez erregularri eta osoki irekitzera behartzen du, herritarren parte-hartze hobea eta hautetsien erantzukizun handiagoa sustatuz. Engaiamendu kolektibo eta iraunkor hori gabe, xede ekologikoak zinezko ekintzatan aski gauzatuak ez diren azaleko intentzioak bilaka daitezke.

2. ZERTAN DAGO METAMORFOSI EKOLOGIKOA?

Epea betez erantzun duten 46 Herriko etxeen artean, **metamorfosiaren batez besteko puntuazioa 0,9 da**, hau da, **ekintza-hasieraren 1. fasera hurbiltzen da** 2021etik, puntuazio honek **0,4ko hazkundea izan du, aitzinatze xumea adieraziz**. 56 Herriko Etxeetan batez bestekoa 0,7/4 da (+0,4 2021etik), hau da, batez beste ez da ezer esanguratsurik egin. 2020an Ituna bere osotasunean plantan ematea harturiko engaiamenduetarik urrun, ez da Herriko Etxe bakar bat ere heldu 3. edo 4. fasera. Herriko Etxe aitzinatuen 2. fasera heldu da; 15 Herriko Etxe 1. fasera heldu dira (2 Herriko etxe 2021ean), eta 40 Herriko Etxek 0. fasean segitzen dute, ekintzarik ezaren fasean.

Herriko Etxeen erantzunek ekimen franko erakusten dituzte, asmo onez, baina usu manera isolatuan eginak. Oro har, falta da ikuspegi orokor bat, planifikazio bat edo ikuspegi zeharkako bat metamorfosi erraldoiari molde eraginkorrean lotzeko.

Ekintzen erritmoa eta irismena oraino mugatuak dira, larrialdi ekologikoaren hedadurarekin eta hautesleen aitzinean hartu engaiamenduekin ez datoz bat. Horrek iradokitzen du hautetsi askoren lehentasunetan oraino ez dela erroto barneratu krisi klimatikoak eskatzen duen egitura-erlaketaketa.

Gelditasun horren zati bat, egia erran, Frantziako Estatuaren laguntza faltagatik azaltzen da. Hala ere, baliabide mugatuekin ere, **borondate politikoa da batez ere metamorfosi ekologikoan inplikatzeko baldintza nagusia**. Horrela, aitzinatuenak diren bi Herriko Etxeak herriak dira: Donibane Garazi eta Baigorri. Aldiz, finantza eta giza baliabide handiagoak dituzten eta biak Itunaren sinatzaile diren hiriek, hala nola Kanbo eta Mugerre, geldirik egote deitoragarria erakutsi dute. Bestalde, 2021etik 2025era aitzinatze handiena ere Baigorri izan du, bere puntuazioa 0,6tik 2,2ra iraganez – +1,6ko igoera. Bidartek eta Azkainek ere aitzinatze ederra izan dutelarik +1,1.

Are kezkarriagoa dena da, anbizio faltaz gain, zenbait Herriko Etxek lege-betebeharra ere ez dituztela betetzen. **8 hirik ingurumen-kodeko L228-2 artikulua urratu dute, hiriko bideak berritzaile bidez bizi-ibilbiderik ez ezarritik. Biohondakinen jatorrizko bereizketa orokortzea etxebizitzaren heren bat baino gutiagori soilik eskaintzen zaie** eta jantokietako menuetan elikagai ekologiko edo begetalen gutieneko mailak ez dira beti errespetatzen.

Hala ere, metamorfosiaren gauzatzetik urrun izan arren, Ipar Euskal Herriko hainbat Herriko Etxek ekintza eredu garriak abiarazi dituzte, goraipatu eta lurralde osorako inspirazio-iturri gisa hartu behar direnak. Haien orokortzea zinezko palanka izango litzateke beharrezko metamorfosi ekologikoa zalutzeko.

ANALISI TEMATIKOA


1. MUGIKORTASUNAK, KONTRAKO NORABIDEAN

Garraioa da lurraldeko berotegi-efektuko gasen isurien lehen iturria. Isuriak ez dira beheitu eta, gainera, petrolio produktuen kontsumoa goititu da 2019az geroztik! Klima Planeko 2030eko helburuetatik biziki urrun, joera kezkarri hau batez ere mugikortasun-planaren helburuen kontrako bilakaeraren ondorio da bi garraio molde nagusietan. % 77tik % 52ra jaisteko ordez, **autoaren erabilera areagotu da**; oinezko mugikortasunak berriz jaisten segitzen du, nahiz eta % 15 eta % 25 arteko igoera izan helburu. "Oro autoz" mugikortasunak osasunean ere eraginak ditu: airearen kutsadura, arrabots-kutsadura ⁶, jarduera fisiko eskasa edo trafiko-istripuak. **Aldiz, garraio publikoaren erabilera positiboki azkartu da**, Txik Txak sarearen eskaintza eta sarea garatzeari esker, eta baita Mugikortasun Sindikatuak sustaturiko **auto-partekatze** neurriari esker ere.

Apalago bada ere, bizikletaren erabilera ere handitu da, herri eta herriarteko bizikleta-planen bidez antolatzen hasi diren bizikleta-bide-sareei esker. Kostaldeko hiriek bide seguru gehien izan arren (Angelu, Baiona, Bidarte edo Urruña), herri ttipi batzuk, hala nola Aiziritze edo Donapaleu, ere aktiboak dira. 2021-2024 artean, 30 milioi euroko obrak egin dira lurraldean, biztanleko eta urteko 21 € inguru. Hobekuntza da 2023ko 14 €/urte/bizt. kopuruaren aldean, baina oraindik urrun da **bizikleta-garapenerako gomendaturiko gutieneko 30 €/urte/bizt. inbertsioetik** ⁷ **Kanbo da segurtasunik gabeko bizikleta bide antolaketarik edo ibilbide berderik ez duen hiri bakarra**. Gainera, ingurumen-kodeko L228-2 artikulua (bide berritzeetan bizikletentzat antolaketan ezartzea eskatzen duena) usu ez da betetzen. 2023-2024an, **Angeluk, Baionak, Kanbok, Ziburuk, Hendaiak, Mugerrek, Donibane Lohizunek eta Hiriburuk artikulua hori urratu zuten**.

⁶ Airearen kutsaduraren kostuak baino handiagoak diren kostuei buruz. [Frantziako arrabotsaren kostu soziala](#) (ADEME 2021).

⁷ Frantziako bizikletaren erabileraren eragin ekonomikoa eta garapeneraren potentziala (ADEME 2020).



→ Ipar Euskal Herriko mugikortasunaren joerak (Mugikortasun Sindikatua, 2024)

Herriko Etxeen batez besteko puntuazioa autoaren bakarkako erabilpenaren alternatiben arloan, 0,3tik 0,7ra igo da (4ko eskalan) 2021 eta 2025 artean, bizikletaren eta garraio publikoaren aldeko hazkunderik handienarekin. **Orokorrean, Herriko Etxeek ez dute bete oinez ibiltzea, bizikleta eta garraio publikoak lehenesteko engaiamendua, eta karrika gehienak autoaren menpe gelditzen dira.** Arrakasta izan duten Herriko Etxeek espazio publikoa orekatzea lortu dute, autoei – batez ere zirkulazioan eta aparkalekuan – leku gutiago utziz, eta mugikortasun alternatiboei leku gehiago emanez. Plantan emanak izaten ari diren Herriarteko Tokiko Hirigintza Planak (HTHP) funtsezkoak izanen dira leku irisgarriagoak sortzeko eta autoaren bakarkako erabilpenaren menderotasuna murrizteko.

2. NOLAKO PLANGINTZA ERAIKINENTZAT?

Energia-kontsumoaren lehen sektorea izanki, eraikinen arloan Herriko Etxeek eredugarritasun-betebeharra badute energia-burujabetzarako bidean.

Datuak bidali dituzten Herriko Etxe guziek murriztu dute energia-kontsumoa 2019-2024 artean (% 19ko batez besteko apaltzea), **salbu Arrosa (+% 12) eta Bokale (+% 11)**. Jaitsierarik handiena **Baigorri lortu du (-% 47), ondotik Gamartek**

(-% 43) eta Gabadiak (-% 37). Herriko argian buruturiko ekintzek (gauez itzaltzea, LED anpoilak jartzea) jaitsiera horietan eragin handia izan dute. Gainerakoa, kasu gutiegitan orokorrak izan diren energia-berritzei (19 Herriko Etxe), arauketei (erabilera-ordutegietara egokitzea, 19 °C-ko berotzearen errespetatzea) eta erabiltzaileen sentsibilizazioari lotua da.

Herriko Etxeak Euskal Hirigune Elkargoaren eta Territoire d'Énergie 64-ren laguntzarekin ari dira eraikinak birgaitzen, energia auditen bidez edo Energia Aholkularitza Partekatuko zerbitzu baten bidez. **7 Herriko Etxek bakarrik abiatua dute inbertsio-plan iraunkorra beren egoitzen arraberritzeko: Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Hendaia, Urruña eta Baigorri.**

Energia-prekaritatearen kontra borrokatzeko, herriko egoitzen arraberritzearen edo herrian gutiegi sortzen diren etxebizitza sozialen osagarri gisa, Herriko Etxe zombaitzuek herritarrak laguntzen dituzte laguntzei buruzko informazioa emanez, duintasun eskasa duten etxebizitzak eta hutsik direnak identifikatuz, egoera larrian diren biztanleak erregistratuz, birgaitze-lanetan diru laguntzekin parte hartuz edo programa espezifikoak dinamizatuz (OPAH-RU PIG habitat, programme «Petites villes de demain»).

Arlo horren batez besteko puntuazioa 0,8koa da, 2021eko 0,2ko batez bestetik gorantz joan da. Alde handiak badira Herriko Etxeen artean: Otik 3,4ra. 4 Herriko Etxe bakarrik dira 2tik gora: Baiona, Hendaia, Donibane Garazi eta Baigorri (3,4rekin). Oraino


bada zer egin, batez ere **eraikinen eraginkortasun termikoaren hobekuntzan (hamarkada ⑧ honetan lehen inbertsio-igoera)** eta sistematizatu behar den energia-prekaritatearen kontrako borrokan.

3. ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ATZERAPENA

Lurraldeko energia berriztagarrien ekoizpena geldirik da: +% 1,6 soilik 2019-2023 artean. Eguzki-energia fotovoltaiakoaren hazkundera Klima Planeko helburuetatik urrun da, eta sutarako egurraren jaitsierarekin batera dator, lurraldeko lehen energia berriztagarria baita. Bai per capita ekoizpenean, bai gure kontsumoen estaldura-mailan, lurraldea azken-aitzinekoa da departamenduko 9 elkargoen artean, eta eskualdeko batez bestekotik ere urrun da. **2050ean energia positiboko lurralde izateko anbizioa**, (hots, tokiko berriztagarriekin beharren estaldura lortzea) ez dirudi biderik onenean denik. Hala ere, proiektu franko aitzinikusiak dira, bereziki ELENA programaren

bidez, elkargoak gidatuak (70 eguzki-zentral fotovoltaiako eraikin publikoetan). Bero-sareak egingo dira Baiona/Hiriburu, Uztaritze, Hazparne, Hendaia, Baigorri eta Izuran 2026rako, gaur egun Baiona, Maule eta Donibane Garazin diren sareei gehituz. Laguntza tekniko eta finantzarioa emateko, elkargoak ADEME-rekin hitzarmen bat sinatua du energia termiko berriztagarrien garapenerako (egur-energia, geotermia, talasotermia, eguzkia).

Proiektuak martxan badira ere, **ekoizpenaren hazkunde bizkorrik gabe, aitzinikusiriko ibilbideetatik kanpo erortzeko arriskuan da lurraldea**. Arlo honek ez du 1. fasea lortzen, baina puntuazioaren batez bestekoa 0,9/4 da (+0,6 2021az geroztik). **Baiona da oraino energia berriztagarrien ekoizle nagusia**, egurraren bidezko bero-sareari esker. 874 MWh-rekin, **Biarritz da bere ondarean elektrizitate fotovoltaiako gehien ekoizten duen Herriko Etxea, eta Baigorri bigarrena da**, 174 MWh-rekin. **Senpere da bere ondarean energia berriztagarri bakar bat ere ekoizten ez duen hiria** eta ez du horren aldatzeko asmorik erakutsi. Erantzun dutenen artean, 14 Herriko Etxek ez dute oraindik energia berriztagarriak ekoizten, eta horien artean 6 herrixka dira. Espero dezagun ondoko agintari taldeak eredu izanen direla lurraldearen metamorfosi energetikoa kausitzeko.



⑧ Tokiko erakundeek klima-finantzaketaren panorama (IACE 2024).


4. ELIKADURA DIBERTSIFIKATUAGOA, BAINA LURRAK BETI MEHATXATURIK

Berotegi-efektuko gasen isurien % 37rekin, laborantza aktibitatea da lurraldeko bigarren isuri-iturri nagusia, abere hazkuntzaren nagusitasunagatik. Izan ere, **jan-moldearen karbono-aztarna kontsumitzen diren animalia-jatorriko produktu kopuruaren arabera** da ⁹, **lehenik, eta ondotik elikagaien jatorriaren arabera**. Osasun, ingurumen eta elikadura-burujabetza ¹⁰, arrazoiak direla eta, kontsumitzen diren animalia-proteinen kopurua % 50 murriztu behar da, lekale, zereal integral... bezalako landare-proteinen mesedetan. Eskola-jantokiak palanka egokiak dira horretarako.

Behatu diren 43 Herriko Etxeetako jantoki-menuetan, **Sara da bio-elikagaien gutieneko legezko heina betetzen ez duen bakarra, ezta astean behin menu begetariano bat eskaintzeko betebeharra ere** : 1 udalerrik astean behin baino gehiagotan

eskaintzen dute animalia-jatorriko produktuak dituzten lehen eta bigarren platerak (2023an 20 ziren). Bidauneko Lurraldeko Sukalde Nagusiak – **elkargoaren menpekoak** – eta 3 hirik (**Kanbo, Mugerre, Uztaritze**) –2023an 11 ziren– **ez dute iduriz betetzen animalia-proteinen kopurua murrizteko** ¹¹ **eta landare-proteinen kopurua handitzeko ekintza-plan bat ezartzeko betebeharra**. Alderantziz, 13 Herriko Etxek astean behin baino gehiagotan eskaintzen dute menu begetarianoa, eskatuz geroz. 5 Herriko Etxek egunero eskaintzen dute **aukera begetarianoa: Baiona, Biarritz, Bidarte, Hiriburu eta Milafranga. Urruñak astean 2 eskaintzen ditu** eta Baionak ere 2025erako helburu hori badu. Menuen dibertsifikazio hori aurrerapauso positiboa da.


Bestalde, **Artifizializazioaren** Behatokiaren arabera, laborantza-lur, natura eta oihan-eremu ziren 345 hektarea galdu dira 2021 eta 2023 artean Ipar Euskal Herrian, urtean 115 ha. 2011-2020 tarteko erritmoa baino apalagoa bada ere, oraindik ere gehiegizkoa da SCoT-ak ezarri % 54ko murrizketa-helburua (urtean 74,8 ha) kontuan hartuz. **Kanboko Marienia betoiztatzearekin**, lur emankorrak babesteko engaiamenduak



⁹ Batez ere abeltzaintzak isurtzen duen metanoaren ondorioz. [Elikaduraren energia- eta karbono-aztarna Frantzia \(ADEME 2019\)](#)

¹⁰ Lurraren erabileraren eragina elikaduran, Ipar Euskal Herriaren elikadura-autonomia 2050ean, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, 2021/10/24.

¹¹ EGAlim legearen arabera, 2018ko urritik aitzina, egunean batez beste 200 otordu baino gehiago zerbitzatzen dituzten egiturek [proteinen dibertsifikaziorako hainbat urtetako plana](#) plantan ezarri behar dute.



behin eta berriz urratzen dituen Kanboz gain, **behaturiko Herriko Etxeen erdia ez da bide egokian**. Azken 10 urteetan ¹², lur-kontsumoaren % 80 inguru itsasaldeko eta itsasalde atzeko Herriko Etxeen ardura izan bada ere, Euskal Kosta Aturri ¹³ Hiri Antolamendu Planak ez du kontuan hartzen SCoT-ak ezarritako muga hori sektore horretan gutenez % 56 murrizteko betoiztatze erritmoa.

Gai honen metamorfosi-puntuazioaren batez bestekoa 0,5 da (4en gain), 2021eko 0,2tik gorago, -0,4tik 2ra doazelarik emaitzak lehen maila gainditu duten 12 herrietan.

5. EUSKOAREN SUSTAPENA, INDARTZEKO

Tokiko monetak tresna erabilgarriak dira ekonomia bertan kokatzeko eta metamorfosi ekologikoa bizkortzeko. Euro bat lurraldetik laster joaten da eta askotan finantza-merkatuetan bukatzen duen bitartean, tokiko moneta lurraldeko zinezko ekonomian soilik zirkulatzen da, bertako enplegua babestuz. **Europako lehen tokiko moneta** da, sarearen tamaina eta transakzio-bolumenaren arabera (4,4 milioi eusko baino gehiago zirkulazioan), eta horrela garatzen ditu hurbileko zirkuitu laburrak, ingurumenarekiko arduragabeko praktiketatik kanpo uzten dituen Euskoaren Ituna lagun. Gainera, euskotan trukatuak diren

euroak gordailu-funts batean ezartzen dira banku etikoetan edo solidarioetan –Crédit Coopératif eta La Nef–, balore sozial edo ekologiko handiko proiektuak finantzatzeko. Tokiko moneten eragin ekonomikoari buruzko ikerketa batek ¹⁴ neurtu du euro bat eusko bilakatzean, ia 3 eusko sortzen direla sareko kideen diru-sarreretan.

Gaur egun, 38 Herriko Etxe eta Euskal Hirigune Elkargoa euskoaren bazkide dira, **agintaldiaren hasieran baino ia bi aldiz kolektibitate gehiago. 2020tik Euskal Moneta elkartean sartu diren 19 Herriko Etxetatik 17 dira Itunaren sinatzaile**. Hala ere, 15 Herriko Etxe sinatzailek ez dute Engaiamendua bete; **Kanbo eta Mugerre dira hitza bete ez duten bi hiri bakarrik**.

Zinezko erabilera indartu behar da atxikimendutik haratago. Euskoaren kide diren 32 Herriko Etxetarik, bakarrik 16k onartzen dute tokiko zerbitzu publikoetan euskoz ordaintzea, 2023az geroztik hiru Herriko Etxe gehiago bakarrik. Goresmenak Azkaineri, **kargualdi honetan alde handiz errekorra baitu Herriko Etxeko diru kuxtaren bidez euskoz lorturiko ordainketetan: 41.000 eusko inguru!** Hendaian, hautetsi eta/edo udal-langile batzuek beren ordainsariaren zati bat euskoz hartzen dute, eta Hiriburun, ordainsari horiez gain, bi elkartek tokiko monetan lortzen dute diru-laguntza. Uztaritzen, hautetsi guztiak euskoz ordainduak izateaz gain, Herriko etxeak euskozko laguntza-gehirak eskaintzen du bizikleta elektrikoak erosteko laguntzan.

¹² 1. eranskina. Diagnostikoa 1.3. Laborantza, natur eta oihan-eremuen kontsumoaren analisia. SCoT Pays Basque & Seignanx.


¹³ Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte eta Bokale barne hartzen dituena.

¹⁴ Frantses Estatuko tokiko moneta trukagarrien efektuak trukeen egituraketan eta sareko enpresen jardura ekonomikoan, eskualde-ekonomiaren ikuspegi kuantitatibo batetik – Oriane Lafuente-Sampietro (2022/11/17). 2019an, ekonomialariak 2,94ko biderkatze-efektua ikusi zuen.

6. HONDAKINAK MURRIZTEN HASTEKO URRATSA, ZABALTZEKO

2023an, Ipar Euskal Herriko biztanle bakoitzeko hondakin-ekoizpena 594 kg-koa izan zen. 2021ean tontorra jo ondoren, **azken bi urteetan % 9ko beherakada handia izan da**, joera positibo eta beharrezkoa. Joera horri eutsiz gero, lurraldeak bere atzerapena berreskuratu eta AGECE legeak ezarri helburua betetzen ahaliko du: biztanleko etxeko eta antzeko hondakinak % 15 murriztea 2030erako.

Hala ere, Herriko Etxeek garrantzi guti ematen diote gai honi, eskumenak Euskal Hirigune Elkargoari eta Bil Ta Garbi sindikatuari delegatu izateagatik. Horren adibide da gai honetako batez besteko puntuazioa 0,4 izatea (4en gainean), 2023tik +0,1eko hazkundearekin bakarrik; ebaluaturiko gai guzaien artean puntuaziorik apalena. Gainera, Herriko Etxe gehienek oraino birziklapena ekintza nagusitzat kontsideratzen dute, bidegabeki, **hondakinik gabeko ikuspegian, prebentzioa, xahuketaren murrizketa, berrerabilpena eta lurrera itzulera lehenetsi behar direnean**.



2024ko urtarilaren 1az geroztik, Herriko Etxe guziak behartuak dira biohondakin (elikagai-hondakin edo hondakin berdeen) jatorrizko bereizketarako aterabideak eskaintzera etxe guzietan eta Herriko Etxeko zerbitzuetan, hurbileko konpostatze edo bilketa bereziaren bidez. Hala ere, **betebehar hori neurri handian ez da errespetatua: etxeen heren bat baino guttiagok dute gaur egun aterabide bat** ¹⁵, nahiz eta biohondakinek oraino sailkatu gabeko hondakin heren bat osatzen duten. Horri buru egiteko, Herriko Etxeek Bil Ta Garbi-ri eskatu behar diote aterabide zehatzak jar ditzan. 32 Herriko Etxe puntuazio Otan dute ekintza honetan, eta 15 hirietatik 8k 0 edo -1 dute, Herriko Etxeko zerbitzuetan jatorrizko bereizketarik ez delako eta/edo Bil Ta Garbi ez zaiolako galderarik luzatu. Datozen hautetsiei dagokie gure hondakinak murriztu eta Ipar Euskal Herriko lurren ongarrizko aterabideak ezartzea.

7. EKOLOGIA-PLANIFIKAZIOAREN HASIERA

Bere 6. txostenean, IPCCk zehazten du +1,5 °C-ko beroketa-muga ez gainditzeko, berotegi-efektuko gasen isuriek % 43 jaitsi behar dutela 2030erako, 2019arekin alderatuta. Euskal Hirigune Elkargoaren Klima Planean, ordea, helburua % 18ko jaitsiera da 2030erako eta % 56koa 2050erako. Horrelako anbizioekin, Ipar Euskal Herria ez da karbono-neutraltasunerako bidean ¹⁶ eta ez du dagokion ekarpena egiten klima-aldaketaren kontrako borrokan. Eskasa den helburu horrek Klima Planaren Partzuergo Batzordetik ateratzera eramane du Bizi!; hartan berriz sartzeko prest da, baldin eta anbizioak handitzen badituzte.

2023an, Donibane Garazi izan ezik, ez zen Herriko Etxe bakar bat ere Klima Plana Herriko Etxe mailan egutegi eta baliabide zehatzekin garatzeko engaiamendua bete zuenik. Bizi! mugimenduak bultzaturiko interpelazio-kanpainaren ondotik – Herriko Etxeak gomitatzen zituena Hirigune Elkartegoko Energia-trantsizioaren eta plangintza ekologikoaren idazkaritza nagusiarekin harremanetan sartzera, laguntza eskuratzeko –, 14 Herriko Etxe sartu dira ekintza-plan bat lantzeko bidean: 9 Herriko Etxe lantzen ari dira edo elkargoaren laguntzaren zain dira, eta **5 jadanik hasiak dira plana gauzatzen: Baiona, Bidarte, Hiriburua, Urruña eta Donibane Garazi, azken hau bakarrik delarik ekintza-orriak sarean eguneratzen dituen: gardentasun eredugarria!** Elkargoak badu ere Herriko Etxeak laguntzeko programa, trantsizio-planak lantzerakoan eta egituratzerakoan.

Nahiz eta adostasun handia dagoen hautetsiak formatzeko beharrari buruz, ohartzen gara hutsune handia badela hautetsien formakuntzan erronka ekologikoei buruz. **2022 eta 2024 artean, jarraipena egin zaien 56 Herriko Etxetako 1.134 hautetsietatik 18k bakarrik erabili dute hautetsien formakuntza-eskubidea** ¹⁷ **erronka ekologikoetan trebatzeko.**

¹⁵ Etxe bakarreko etxebizitzaren % 51k biohondakinak bereizteko soluzioak dituzte (Bil Ta Garbi), baina hauek lurraldeko etxebizitzaren % 40 baizik ez dira (INSEE).

¹⁶ Karbono-neutraltasuna atmosferan isurtzen den karbono kopuru bera xurgatzea da, haren kontzentrazio-maila egonkor mantentzeko eta planetaren tenperatura orokorraren igoera mugatzeko.

Bizik antolaturiko bi formakuntza-zikloetan, berriz, 108 parte-hartze izan dira, 59 hautetsi eta 6 funtzionariok parte hartu dute, 34 Herriko Etxetarik. Bestalde, politika ekologikoak ezartzeko behar den gaitasun teknikoa bermatzeko, Angelu, Hiriburu edo Urruñako Herriko etxeek teknikariak kontratatatu dituzte, gidaritza eraginkor eta transbertsalerako.

Gai honetako batez besteko puntuazioa 0,4tik 0,5era igo da 2023tik 2025era, baina desberdintasun handiak badira. 1. maila edo gehiago lortu duten 14 Herriko Etxeetako gehienak hiriak dira, eta herri ttipiak edo baserri-eremuak oso gutitan sartzen dira ikuspegi transbertsal honetan.

8. ELKARGOAREN INBERTSIOAK KOHERENTZIARA EKARTZEA


2019 eta 2023 artean lurraldeko berotegi-efektuko gasen isuriak % 10 jaitsi ziren, eta horrek betetzen du Klima Planean Euskal Hirigune Elkargoak ezarri helburua. Hala ere, Hexagono mailako beherakada % 13koa izan zen aldi berean, eta **gure lurraldea ez da +1,5 °C-ko beroketa-mugan egoteko bidean, % 16ko jaitsiera beharko zuen horretarako**. Gainera, zenbaki horiek

ez dituzte kontuan hartzen Ipar Euskal Herrira inportaturiko isuriak, egungo Klima Planak ez baitu horiek neurtzeko asmorik (Frantziako karbono-aztarnaren % 56a inportazioekin lotua bada ere ¹⁸).

Energia-kontsumoaren kurbak neurritasun-bidea segitzen badu ere, energia berriztagarrien ekoizpenarena helburuetatik urruntzen ari da, bereziki fotovoltaiakoarena, Klima Planak identifikaturiko iturri nagusiarena. Dena den, energia termiko edo elektrikoaren ekoizpenerako proiektu franko martxan dira, baina ez dute oraino emaitzarik ekarri.

Klima Planaren erdibideko bilanak, azkenean, lurraldearen egoeraren estimazio bat ematen badu ere, gardentasunean hobekuntza handitzeko aukera bada. Ekintza-jarraipeneko adierazle anitz ez dira komunikatu. Datuen proiektu-buru bat kontratatzea eta Ipar Euskal Herriko Trantsizioen Behatokia sortzea herritarrei informazio hobea eskaintzeko lagungarri izan daitezke.

Bilanak ez du agerian ematen ere mobilizaturiko eta aurreikusiriko giza eta finantza-baliabideen egoeraren laburpenik. Zoritxarrez, urte honetatik derrigorrezkoa den eranskina, aurrekontuak trantsizio ekologikoarentzat duen



¹⁷ Moncompteelu - Hautetsiek segituriko formakuntzak - Caisse des Dépôts 2025.

¹⁸ Ingurumenaren egoera Frantzian RAPPORT 2024 SDES-Insee txostena.

¹⁹ Kontu administratiboa Aitzinkontu nagusia 2024 - Euskal Elkargoa.

eragina adierazten duena, ez dute zabaldu. Horien arabera, **2024an ²⁰ inbertsio-gastuen % 9 izan zen klima-aldaketaren arintzea laguntzeko, baina % 16 kaltetzeko! Gastu “marroi” horien ia bi heren Euskal Elkargoaren ekintza ekonomikoaren ondorio dira ²¹**. Joera oker hauek bizkortu beharko lukete aitzinkontu berde baten plantan ematea, gastuak “marroi” izatetik “berde” izatera laster eta fermuki bideratzeko, Institut de l'économie pour le climat ²² erakundearen arabera behar diren % 18ko inbertsio-helburua lortzeko 2030erako, Karbono Apaleko Estrategia Nazionalaren helburuak betetzeko.

KLIMA ETA IPAR EUSKAL HERRIKO HERRITARRAK BABESTEKO BALIABIDEAK SORTU

Karbono-neutraltasuna lortzeko, tokiko kolektibitateek inbertsioak bikoiztu behar dituzte: 2024tik 2030era urtero 11 miliar euro gehiago mobilizatu beharko dituzte ²³ I4CE erakundearen arabera ²⁴. Horretarako, institutuaren erranetan, **tabuak gainditu eta palanka guziak baliatu behar dira: inbertsioei lasterrago beste norabide bat eman (“marroi” gastuetatik “berdeetara”), maileguetara gehiago jo, kolektibitateen baliabide propioak gehiago mobilizatu eta Frantziako Estatuaren babes sendoagoa eta aitzinetik jakinen dena ukan.**

Trantsizioa sostengatzen duten dirutza murriztuz, Frantziako Estatuaren egungo aurrekontu-orientazioak arduragabekeria larria dira. Zor finantzarioan soilik zentratzen dira, zor ekologikoaren kaltetan –Hegoaldeko herriekiko zein belaunaldi berriekiko. Zor ekologikoaren ondorio katastrofikoak, ordea, ez dira negoziagarriak izango. Stern txostenetik (2006) IPCCren azken txostenera, argi da **geldirik egotearen kostua oraindik ekitearena baino handiagoa izanen dela; 3 urteko atzerapenak soilik hirukoiztuko luke ²⁵ orain harturiko neurrien kostua**. Eta klima-aldaketaren kontrako politikak osasunean ekarriko dituzten onurak gastu horien gainetik izanen dira ²⁶.

Hamarkada honetan hartuko diren neurriek erabakiko dute ondotik zer tarte geldituko zaigun ekiteko. Erronka ekologikoari buru egiteak politika publiko guzietan ekintza egituratzailerik eta koherenteak planifikatzea eskatzen du. Lurraldeak metamorfosi ekologiko eta soziala egin behar du. Hautetsien borondatea ekintzaren lehen faktorea denez, Ipar Euskal Herriko herritarrek aukera paregabea izanen dute 2026ko Herriko Etxe eta Elkargoko hauteskundeetan. Bizik dei egiten die hautesleei **boza emateko “Klimaren eta euskal herriko biztanleen aldeko 2026ko Ituneko” neurriak beren programan txertatu dituzten hautagai-zerrendei**, eta 2020-2026 kargualdiko engaiamenduak bete gabe utzi ez dituztenei. Zerrenda horiek identifikatuak izanen dira elkarteak argitaratuko eta nasaiki zabalduko duen barometroaren bidez.



→ Hautagai zerrendek beren programan integratzeko gomita ukanen duten 2026ko Ituneko neurrien aurkezpen prentsaitzinekoa.

²⁰ Hau da, deskarbonizazio ibilbideekin bat ez datozen gastuak.

²¹ Tokiko kolektibitateak: nola finantzatu klima-inbertsioen azelerazioa? (I4CE / La Banque Postale 2023).

²² Tokiko kolektibitateen klima-finantzaketaren panorama (I4CE 2024)

²³ Frantziako Bankua barne hartzen duen banku zentralen koalizioa den NGFSren ikerketa baten arabera, *NGFS Short-term Climate Scenarios for central banks and supervisors 2025*.

²⁴ Frantzia-Britainia arteko ikerketa baten arabera, *Lancet Planetary Health* aldizkarian argitaratua.

«+3°C-ko berotze globalaren bidean garela eta, gure Herriko Etxearen bai eta Euskal Elkargoaren mailan azkarki eta molde deliberatuan jokatu beharraz kontziente, herritarrei etorkizun bizigarri bat bermatzeko gogoz, gure herrikideen ongizatea eta osasuna hobetuz, **gehiengoak gure zerrenda hautatzen badu 2026ko martxoan, ondoko neurriak plantan ezartzeko engaiamendua hartzen dugu 2026-2032 kargualdian: »**

BIZILEKUA EGOKITU

- Etxebizitza berriak sortu, denentzat eskuragarriak, lur eremu berririk kontsumitu gabe.
- Muturreko egoera klimatikoei egokituriko etxebizitza erosoak eraiki eta berritu.
- Bizi ingurune berdeagoa eta atseginagoa sortu.

MUGITU

- Garraio publiko praktikoagoak eta egokiagoak garatu denentzat.
- Bizi eta jarduera eremu nagusiak elkarri lotu, oinez eta bizikletaz segurtasunez mugitzeko aukera ematen duten instalazioen bidez.
- Espazio publikoaren partekatze orekatuagoa antolatu eta oinezkoak, txirrindulariak zein garraio publikoak lehenetsi.

ENERGIARI MENPEKOTASUNA TTIPITU

- Kolektibitatearen energia-kontsumoa murriztu gastuak ttipitzeko.
- Tokikoa, herritarra eta berriztagarria den energia ekoiztu burujabetza energetikorantz aitzinatzen.

ELIKATU

- Elikadura ekoizteko lurak babestu, tokiko laborantza herrikoi, biologiko eta dibertsifikatuaren faboretan.
- Elikadura sana, tokikoa eta eskuragarria bermatu eskola jantokietan.
- Biztanle bakoitzak kalitate oneko ur edangarri aski eskura dezakeela segurtatu.

EKONOMIA BIRTOKIRATU

- Tokiko monetaren erabilera orotara hedatu.
- Ekonomia zirkularra garatu konponketaren, berrerabilpenaren eta hondakinen murrizketaren bidez tokiko enpleguaren faboretan.
- Biztanleria kanpoko publizitatetik babestu.

EKITEKO BALIABIDEAK HARTU

- Politika ekologikoen koordinazioa bermatzeko aski jende eman (auzapezorde bat gutenez).
- Biztanleei beren bizi ingurunean eragina duten erabakietan zinezko lekua eman.
- Aitzinkontu berdea plantan ezarri kargualdiaren lehen urtetik beretik.
- Hautetsiak eta herriko langileak erronka ekologiko eta sozialei buruz formatu kargualdiaren lehen urtetik beretik.
- Erronka ekologiko eta sozialak bete behar dituen lurraldearentzat ekintzak planifikatu.

HITZEMAITE ORRIA

Hiri/Herria:

Zerrenda buruaren izen, abizen eta kontaktuak:

Zerrendaren izena:

.....

Sinadura:

.....

Informazio gehiago: <https://ituna2026.bizimugi.eu> | Kontaktua: hitzahitz@bizimugi.eu



ITUINIA

2020

IPAR EH-KO METAMORFOSI EKOLOGIKOA

Kontziente gara baitezpadako beharra badela indar eta determinazio osoz Herriko Etxeen eta Euskal Elkargoaren mailan ekiteko, planeta mailako beroketa +2°C edo +1,5°C-ra mugatzeko, nahasmendu klimatikoaren hipotesirik txarrena saihesteko, jendarteari eta planetaren bio-aniztasunari etorkizun bizigarria eskaintzeko. Ondorioz, 2020ko martxoan hautetsi bilakatzen bagara, gure zerrenda engaiatzen da Herriko Etxe eta Euskal Elkargoaren 2020-2026ko agintaldian:



BAKARKAKO AUTOAREN ERABIL- PENAREKIKO ALTERNATIBOAK DIREN MUGIKORTASUN GUZTIA ALDE EKITERA

Bideen edozoin birmoldatzerentzat, lekualdatze moduak ondoko ordenan lehenetsiz: oinez ibiltzea > bizikleta > autobusa > autoa. Herriko bide guztiak bizikletaz erabiltzeko gisan ezarri, egokiena den birmoldatzearen bidez: abiaduraren ttipitzea, bizikleta bide edo zintekin, bizikletei kontrako-norabidea ahalbidetuz. Ipar Euskal Herri osoan garraio publiko eskaintza baten garapenean parte hartzea, jendartearen beharrei egokituak zaizkien maiztasun, ordutegi eta prezioekin.



EGOITZETAN ENERGIAREN MENPERATZEAREN ALDE EKITERA

Kargualdiaren lehen hilabeteetan, Herriko eta Elkargoko erakuntzen ondarearen arraberritze termiko plan anbiziotsu bat bozkatzu, kontsumo apalaren maila helburu izanez. Eraikin berriak, pasiboak eta energia ikuspuntutik positiboak direnak soilik eraikitzea. Négawatt-en lehenetsunak segitzea: neurritasuna, eraginkortasuna, energia berriztagarriak. Etxebizitzaren prekaritate energetikoaren kontra borrokatuz eta kontsumo elektrikoaren ttipitzea sustatuz, lurralde animatze ekintzak plantan ezarri (Energia Positibo Desafioa). Egoitzen kontsumoaren jarraipen erregularra segurtatzea.



%100 BERRIZTAGARRIAK DIREN ENERGIEN LURRALDE BATEN ALDE EKITERA

Gure lurraldean, energia berriztagarrien ekoizpena garatuz, 2045eko energia autonomia %100 berriztagarria izatea helburutzat ukanez: fotovoltaikoa, haize-energia, metanizazioa, berotasun sarea, energia hidroelektrikoa, marea-energia, etab. Tokiko ekimen herritarrak lagunduz elektrizitatearen ekoizpenaren (I-ENER) eta hornitzearen (ENARGIA) alorrean. %100 berriztagarriak diren elektrizitate, gas eta tokiko ekoizpenetik datozen egurren bidez hornituz Herriko eta Elkargoko eraikin eta ekipamenduak.



TOKIKO ELIKAGAIEN ETA LABORANTZA BIOLOGIKO BATEN ALDE EKITERA

%100 tokikoa, herrikoa, gehigarri kimikorik gabekoa/biologikoa den elikagaia helburutzat duen laborantza eta elikadura estrategia bat obratuz, Herriko eta Elkargoko egituretan. Kolektibitateko jantzi-gietan ekinez, tokiko menu biologikoekin eta hautu begetariano batekin (hautzaindegia, eskola, zahar-etxe, etab.). "Klimarentzat ona den" elikaduraren banaketa erraztuz (ekoizle saltegi, AMAP, janari-saltegi kooperatiboa...). Elikadura burujabetza lortzeko xedearekin, lantzen ahal diren lur erreserbak babestuz.



EUSKOAREN GARAPENARI ESKER TOKIKO EKONOMIAREN ALDE EKITERA

Euskal Moneta elkartearen kide bilakatuz, 2020tik beretik, eta Tokiko Kolektibitateen Biltzarrean parte hartuz, Herrian eta Euskal Elkargoan, lurralde-langile, hautetsi, biztanle eta enpresen artean euskoaren erabilpena garatzeko molde hoberearen ikertzeko eta definitzeko.



HONDAKINEN MURRIZTEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDE EKITERA

Lurraldeko biztanle eta aktore guztiak parte harraraziz, hondakinen prebentzio eta kudeaketa estrategia bat definituz. Bio-hondakinak jatorrian bereiziz. Konpostatzearekin, bakarkakoa edo kolektiboa, posible delarik, balioztatzea sustatuz. Bestenaz, sukaldeetako bio-hondakinak bereiz biltzea antolatuz. Neurriak hartuz berinaren biltzea hobetzeko eta haren berrerabilera buruz joanez itzultze sistemari esker. Prezioen ttipitzeen bidez praktika onen sustapena obratuz. Berrerabilera lehenetsiz, birziklatze eta konponketa-guneei esker, %100 birziklatzearen bila ibili ordez.



IPARRALDEKO KLIMA-AIREA-ENERGIA LURRALDE-PLANA OSOKI GAUZATZERA

Herri mailako plan bat bozkatzu, udalaren Klima Planaren ardatz obragarriak zehaztuko dituen deliberamendua hartuz, kargualdiaren lehen urtea bukatu aitzin. Honen plantan ezartzearen garrantasuna segurtatzera, jarraipen tresnen bidez. Klima Planaren helburuekin bateragarriak ez diren proiektuak ez obratuz.



www.bizimugi.eu | 05 59 25 65 52
20, 22, rue des Cordeliers - 64100 Bayonne



Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin argitaratua da: libreki zabal daiteke erabilera komertzialerako izan ezik, egilea aipatuz eta edukia aldatu gabe.

2025eko irailean inprimatua, paper birziklatuan, Léa nature fundazioaren laguntzarekin.

